

# FRANTZIAKO TOURRA 2024

GUKAREN ALDEKO 24. POURRA

- Edonork har dezake parte, nahi adina talde osatuz. Apustu bakoitzean **9 txirrindulari** aukeratu beharko dira — **ordenean**—, bi ordezeko eta **talde bat**.
- Talde bakoitzeko **20 euro** jokatu dira.
- Partaide bakoitzak inprimaki hau beteko du, **datu guztiak**.
- Azken orduan txirrindulariren bat ez irtenez gero, **ordezkoak hartuko dira kontutan**, ordena errespetatuz (alegia, lehenengo ordezkoa 9. postuan sartuko litzateke). Ordezkoekin ere taldea osatu gabe gelditzen bada, ezingo da aldaketarik egin.
- Sariak **Tourra bukatzean** banatuko dira, **Tour osoan lortutako puntuen arabera**, eta hauek izango dira:

**1. saria:** bildutakoaren %30

**2. saria:** bildutakoaren %20

**3. saria:** bildutakoaren %10

(GUKArentzat %40)

**Beste sariak** (postua zehazteko):

- Bi lagunentzako otorduak (Bixker, Etxe Zuri, Jim Clark, Korrale eta Sanagustin)
- ErrekaBike-en oparia
- Ziklos Beniren oparia
- Aitzaki Kirolak-en oparia
- Elustondo Banaketak: 2 ardo sorta
- Zuar kafetegia 2 gosari (bi lagunentzat)
- *Tiobibotako* txartelak
- Igerilekurako bi bono

- Txirrindulariren bat deskalifikatua izan arren, aurrez lortu dituen puntuak ez zaizkio kenduko.
- TOURRA amaitzean, sarituetan berdinketa emanez gero, horien artean lortutako sari osoa zati berdinetan banatuko da.
- Txirrindulariko puntuazioa, honela kalkulatu da:

**BAT:**

EGUNERO		AMAIERAN		
Etapako sailk.		Sailk. orokorra		Mendikoa
1.	31	1.	150	1. 50 puntu
2.	25	2.	140	2. 30 puntu
3.	21	3.	130	3. 15 puntu
4.	17	4.	120	
5.	13	5.	110	<b>Erregularitatea</b>
6.	9 puntu	6.	100	1. 50 puntu
7.	7 puntu	7.	90 puntu	2. 30 puntu
8.	5 puntu	8.	80 puntu	3. 15 puntu
9.	3 puntu	9.	70 puntu	
10.	1 puntu	10.	60 puntu	<b>Taldekakoa</b>
		11.	50 puntu	1. 50 puntu
		12.	40 puntu	2. 30 puntu
		13.	30 puntu	3. 15 puntu
		14.	20 puntu	
		15.	10 puntu	

**BI:** Txirrindulari bakoitzaren puntuazioa, ordea, ponderatu egingo da apustugilearen taldean duen postuaren arabera. Faktore hauekin:

Taldeko ORDENA	Txirrindulariaren puntuak guztira
1.	Txirrindulariaren puntuak x 1,40
2.	Txirrindulariaren puntuak x 1,35
3.	Txirrindulariaren puntuak x 1,30
4.	Txirrindulariaren puntuak x 1,25
5.	Txirrindulariaren puntuak x 1,20
6.	Txirrindulariaren puntuak x 1,15
7.	Txirrindulariaren puntuak x 1,10
8.	Txirrindulariaren puntuak x 1,05
9.	Txirrindulariaren puntuak x 1,00

Adibidez: demagun POGACAR-ek Tour osoan 100 puntu lortzen dituela. A taldeak POGACAR 1. postuan jarri badu, beretzat  $100 \times 1,40 = 140$  puntu izango dira; B taldeak 6. postuan jarri badu, beretzat  $100 \times 1,15 = 115$  puntu. Beraz, inportantea da **txirrindularia taldeko zein postutan hartzen den** begiratzea. Oso zaila izango da bi talde berdin-berdin egotea.

**9. Izen ematea, EKAINAREN 29an, 12:00etan itxiko da.**

**10. Leku hauetan egin daiteke apustua: ETXE-ZURI, JIM CLARK, BIXKER, AITZAKI, ZIKLOS BENI, ERREKA BIKE, KORRALE, SANAGUSTIN eta ZUAR.**

**11. azpeitiaguka.eus** webgunean egunero jarriko da emaitza.

**12. Zalantzaren bat egonez gero, azken hitza GUKAK izango du.**

**GOGORATU**

- **Apustua: 20 €**
- **Ekainaren 29an, 12:00etan.**
- **Pourra osoa [www.azpeitiaguka.eus/pourra](http://www.azpeitiaguka.eus/pourra) webgunean! Baita azken urteetako emaitza guztiak ere.**

- IZEN-ABIZENAK: \_\_\_\_\_
- TELEFONOA: \_\_\_\_\_
- TABERNA EDO LEKUA: \_\_\_\_\_
- TALDEAREN IZENA (sailkapenetan agertzeko): \_\_\_\_\_

**Pelotoi osoko, BEDERATZI TXIRRINDULARI, TALDE BAT** eta BI TXIRRINDULARI ORDEZKO aukeratu behar dituzu.  
**BETE ONDOKO TAULA!**

Txirrindularien izen-abizenak ipini, nahasketarik ez egoteko.

Pourra jarraitzeko, eta aurreko urteetako datuak ikusteko:  
**WWW.AZPEITIAGUKA.EUS**

ORDENA	Txirrindulariaren IZEN-ABIZENAK
1.	
2.	
3.	
4.	
5.	
6.	
7.	
8.	
9.	
<b>Taldea</b>	
ORDEZKOAK	Txirrindulariaren IZEN-ABIZENAK
1.	
2.	